



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# MATRIKULAZIO ARAUDIA 2024-2025 IKASTURTEA

2022AN, 2023AN ETA 2024AN  
JAIOTAKO HAURRENTZAT



## UDAL HAUR ESKOLAK





## AURKIBIDEA

<b>1. Udal Haur Eskoletan sartzeko erak</b>	<b>2</b>
1.1. Matrikula berritzeko eskabideak	2
1.2. Izena emateko eskabideak Udalaren Gizarte Zerbitzuen proposamenez	3
1.3. Izena emateko eskabide berriak	3
<b>2. Onartzeko baremoa</b>	<b>6</b>
<b>3. Izena emateko eta matrikulatzeko ohiko epea</b>	<b>10</b>
3.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea	10
3.2. Eskatzaileen zerrenda argitaratzea	11
3.3. Derrigorrezkoa den dokumentazioaren zuzentzeko epea	11
3.4. Behin-behineko haur onartuen zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea	12
3.5. Erreklamazioak egiteko epea	12
3.6. Behin betiko zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea	12
<b>4. Ohiko epetik kanpoko izen emateen eskabideak (2024-2025 ikasturtean zehar egitekoak)</b>	<b>14</b>
4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea	14
4.2. Itxaron zerrenda eta epez kanpoko eskabideak	15
<b>5. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa</b>	<b>17</b>
5.1. Nahitaezko dokumentazioa	17
5.2. Nahitaezkoa ez den dokumentazioa, baina beharrezkoa baremazioan puntuak lortzeko	18
<b>6. 2024-2025 ikasturterako tarifak</b>	<b>26</b>
6.1. Zerbitzuaren prezioa	26
6.2. Arau aplikagarriak	27





## 1. Udal Haur Eskoletan sartzeko erak.

Eskabide mota hauek egongo dira:

- Matrikula berritzeko eskabideak (aurreko ikasturtean matrikulatutako haurrak).
- Udalaren Gizarte Zerbitzuen proposamenez egindako izena emateko eskabideak.
- Izena emateko eskabide berriak:
  - Ohiko epearen barruan aurkeztutakoak.
  - Ohiko epea bukatu ondoren egiten direnak.

### 1.1. Matrikula berritzeko eskabideak.

2022an eta 2023an jaiotako haurrek matrikulatuta dauden eskoletan eska dezakete berriro plaza, eta Udalaren sareko beste edozein eskolatara aldatzeko ere eska dezakete. Horretarako, ordea, **2023-2024 ikasturteko kuoten ordainketan egunean egon beharko dute.**

**Berritzeko eskabideak aurkezteko epea:** 2024ko apirilaren 8tik 11ra (bi egunak barne).

Ez bada zehaztutako epean berritzen, galdu egingo da eskolako plaza. Hala ere, berritzeko epea igaro ondoren, 2024-2025 ikasturterako leku bat eskatu nahi bada, izena emateko ohiko prozesuaren barruan egin ahal izango da, edo prozesu hori amaitu ondoren eta ikasturtean zehar, sartzeko baldintzei eta baremoari jarraituz, edonola ere.

**Eskabidea aurkezteko lekua:** eskabide orria haurra 2023-2024 ikasturtean matrikulatuta egon izan den eskolan aurkeztuko da.

Jantoki zerbitzua: haurrari jantoki zerbitzuan plaza esleitu ahal izateko, laneko arrazoiak justifikatu eta behar bezala egiaztatu beharko dute, bai lehendik zerbitzu hori zutenek, bai lehen aldiz eskatzen dutenek. Familiak egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte berritzeko eskaerarekin batera.





Eskola aldaketa: Udalaren sareko beste eskola batera aldatzeko eskaera egiten bada, aldatu nahi den eskolan plaza egotearen menpe egongo da onartzea. Eskolaz aldatzeko eskaerak eskuragarri dauden plazak baino gehiago badira, araudi honetan ezartzen den baremoa aplikatuz esleitu dira.

## 1.2. Izena emateko eskabideak Udalaren Gizarte Zerbitzuen proposamenez.

Zailtasun sozialeko egoeran, zaurgarritasun sozio-ekonomikoan edota babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hezteko eta horiei arreta eskaintzeko 2017ko irailaren 11n onartu eta 2020ko uztailaren 27an eguneratutako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza Zerbitzuaren arteko Lankidetzaren eta Koordinazio Protokoloan ezarritakoaren arabera, hoguei leku gordeko dira ikasturte bakoitzean Gizarte Zerbitzuen arreta jasotzen duten eta babesgabetasun egoeran dauden familientzat. Gizarte Zerbitzuek euren ustez eskolatzea komeni diren haurren gaineko proposamen arrazoitua igorriko dute 2024ko apirilaren 15ean eta Hezkuntza Zerbitzuak aztertuko du proposamen hori.

**Matrikula formalizatzeko epea:** 2024ko apirilaren 24tik 26ra, plaza esleitu den eskolan.

Ezarritako epea amaitzen denean, bukatutzat emango da plazak erreserbatzeko prozedura hori. Matrikula epe horren barruan egin ez duten familiek ez dute matrikulatzeko eskubiderik izango. Bete ez diren plazak Udal Haur Eskolen eskaintza orokorrera igaroko dira.

## 1.3. Izena emateko eskabide berriak.

Familiek ohiko epean nahiz ikasturtean zehar aurkeztu ahal izango dituzte izena emateko eskabideak.

- **Eskolatzea 2024ko iraileko lehen eskola egunean hasteko ohiko epean aurkeztutako eskaerak.** Eskaerak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 10era izango da, biak barne, 2022, 2023 eta 2024an jaiotako haurrentzat. 2024ko maiatzaren 10etik 15era (biak barne) jaiotako haurrentzat, epea irekita egongo da 2024ko maiatzaren 20ra arte, egun hori barne.
- **Ikasturtean zehar aurkeztutako eskabideak, eskolatzea eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehen eskola egunean hasteko.** Leku huts bat eskatzeko epea hilabete bakoitzeko 1etik 10era bitartean egongo da irekita, irailetik aurrera.





### **Ezin izango dute izena eman:**

- Urte batetik beherako haurrek, baldin eta haien amak, aitak edo legezko tutoreak amatasun eta/edo aitatasun baimenak baliatzen ari badira, salbu eta, eskolatzearen hasieran, gehienez ere baimenaren 4 aste hartzeko badituzte guraso bakarreko familia bada, eta 4 aste guztira bien artean, bi gurasoko familien kasuan.

Arau horretatik kanpo geratuko dira familia hauek:

- gaixotasun larria duten gurasoak edo legezko tutoreak; egoera hori dagokion mediku ziurtagiriarekin ezgiatzatu beharko da.
- Guraso bakarreko familiak, baldin eta seme-alabak goizeko ordutegian soilik inskribatzen badituzte.

Amatasun eta/edo aitatasun baimena jardun partzialean hartzen den kasuan, eskaera izapidetuko da, betiere hartutako asteak eta hartzeko daudenak justifikatzen badira.

- Seme-alaba adingabeak zaintzeko lan eszedentzia egoeran dauden eta horregatik laguntza ekonomikoa jasotzen duten gurasoak edo legezko tutoreak dituzten haurrek. Hala ere, izena eman ahal izango dute, baldin eta lanera itzultzen badira edo laguntza ekonomikoa amaitzen bazaie semea edo alaba eskolatzearen lehenengo hilabetean.

Arau horretatik kanpo geratuko dira familia hauek:

- gaixotasun larria duten gurasoak edo legezko tutoreak; egoera hori dagokion mediku ziurtagiriarekin ezgiatzatu beharko da.
- Guraso bakarreko familiak, baldin eta seme-alabak goizeko ordutegian soilik inskribatzen badituzte.

Oro har, ez da hutsik dagoen plazarik beteko 2024-2025 ikasturtearen azken hiruhilekoan.

### **Eskabideak aurkezteko tokia:**

- Online, Vitoria-Gasteizko Udalaren web orriaren bidez.





- Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (aurretiko hitzorduarekin).
- San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan (aurretiko hitzorduarekin).
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten haurren eskabideak: familiei argibideak eta orientabideak eskaintzeko, eskabideak Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztuko dira lehenespenez (Frai Zacarias Martinez kalea, 3), 08:30etik 14:00etara bitarteko ordutegian. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako, zeina 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez.

Osasun laguntza beharrean diren haurren eskaerak onartzea: Hezkuntza Zerbitzuak erabakiko du osasun laguntzaren premian diren haurrak onartu ahal diren, horretarako beharko diren giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta.





## 2. Onartzeko baremoa.

Eskabideen baremazioak irizpide hauei jarraituko die:

a) **Familia unitatearen urteko errenta (Zerga oinarri orokorrak + Aurrezkiaren zerga oinarriak):**

14.000,00 €-ko diru sarrerak edo txikiagoak	2 puntu
42.000,00 €-ko diru sarrerak edo txikiagoak	1,5 puntu
70.000,00 €-ko diru sarrerak edo txikiagoak	puntu 1
Aurreko kasuetan beste 0,25 puntu gehituko dira eskaera egiten duen haurraz gain den beste adingabe bakoitzeko.	
Atal honetako gehieneko puntuazioa.....	4 puntu

Adierazitako puntuazioa lortzeko eskubidea izateko, familia unitatea eratzen duten kide guztien 2022ko zerga ekitaldiari dagozkion diru sarrerak hartuko dira kontuan.

Gizarte laguntzak jasotzen dituzten pertsonen kasuan, laguntza horiek ematen dituztela edota diru sarrerarik ez dutela egiaztatzen duten Udalaren Gizarte Zerbitzuen edo Hirugarren Sektoroko beste Erakunde batzuen ziurtagiria aurkeztu ahalko da.

b) **Helbidea edo lantokia** (Kontseptu ez metagarriak):

Gurasoetako edo legezko tutoreetako batek edo biek eskatu den eskolan egiten dute lan.	7 puntu
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta dago eta haren helbidea bat dator, gutxienez, gurasoetako edo legezko tutoreetako batekin.	5 puntu
Haurra ez dago erroldatuta Vitoria-Gasteizen, baina gurasoetako edo legezko tutoreetako batek edo biek Vitoria-Gasteizko udalerrian egiten dute lan.	3 puntu
Haurra haur eskola publikorik ez duen udalerririk hurbilena Vitoria-Gasteiz da.	5 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	7 puntu

c) **Eskatu den eskolan anai-arrebak matrikulatuta izatea:**





Anai-arreba bat edo gehiago daude matrikulatuta eskabidean adierazitako eskolan 2023-2024 ikasturtean, eta eskola horretan jarraitzeko berri egin dute matrikula 2024-2025 ikasturterako.	9 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	9 puntu

**d) Familia ugaria edo guraso bakarreko familia:**

Kategoria bereziko familia ugarikoa izateagatik.	1,5 puntu
Kategoria orokorreko familia ugarikoa izateagatik.	puntu 1
2 seme-alaba edo gehiago dituen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	1,5 puntu
Seme edo alaba bakarra duen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	puntu 1
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	1,5 puntu

**e) Aniztasun funtzionala:**

Matrikulatu nahi den haurrak %33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik.	3 puntu
Gurasoetako edo legezko tutoretako batek zein biek nahiz anai-arrebaren batek %33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik.	2 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa .....	3 puntu

**f) Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera** (behin betiko ezintasun iraunkor absolutuaren egoera lan egoera aktiboarekin parekatzen da):

Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso edo legezko tutore biek lan egiten dute.	5 puntu
Ama bakarreko edo aita bakarreko familien kasuan, amak, aitak edo legezko tutoreak lan egiten du.	5 puntu
Bi guraso dituzten familien kasuan, gurasoetako batek edo legezko tutoretako batek lan merkatuan lan egiten duenengan, eta bestea enplegu bilaketa aktiboan dagoenean edo ikasketa ofizialak egiten ari denean.	2 puntu







Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso edo legezko tutore biak enplegu bilaketa aktiboan daudenean edo ikasketa ofizialak egiten ari direnean.	2 puntu
Guraso bakarreko familien kasuan, gurasoa edo legezko tutorea enplegu bilaketa aktiboan dagoenean edo ikasketa ofizialak egiten ari denean.	2 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa.....	5 puntu

**g) Genero indarkeriaren biktima:**

Haurra, haren ama edo legezko tutorea genero indarkeriaren biktima da.	2 puntu
--	---------

**h) Terrorismoaren biktima:**

Haurra, haren ama, aita edo legezko tutorea terrorismoaren biktima da.	puntu 1
--	---------

**i) Familia harrera:**

Haurra harrera familia batean bizi da.	puntu 1
--	---------

**Berdinketa hausteko irizpideak:**

Berdinketa ematen dada, aurreko irizpideen arabera lortutako puntuazio handienari erreparatuko zaio. Irizpideak banan-banan eta jarraian adierazten den hurrenkeran alderatuko da.

1. c) ataleko (“Eskatu den eskolan anai-arreba matrikulatuta izatea”) puntuazio handiena.
2. b) ataleko (“Helbidea edo lantokia”) puntuazio handiena.
3. e) ataleko (“Aniztasun funtzionala”) puntuazio handiena.
4. d) ataleko (“Familia ugaria edo guraso bakarreko familia”) puntuazio handiena.
5. a) ataleko (“Familia unitatearen urteko errenta”).

Horren ondoren ere berdinketak jarraitzen badu, ordena alfabetikoaren arabera erabakiko da, Eusko Jaurlaritzak urteko modu aleatorioan xede horretarako erabakitzen duen letratik hasita. 2024-2025 ikasturterako “P” letra izango da.

**Baremazioan alberdi hauek hartuko dira kontuan:**





- Baremazioarako edo puntuak lortzeko dokumentazioa eskabideak aurkezteko epean aurkezten bada bakarrik hartuko da kontuan.
- Nahitaezko dokumentazioa zuzentzeko epean, ez da onartuko baremazioarako justifikatzeko agiri berririk.
- Aurreko baremoa erabiliz eskabide bakoitzari ematen zaion puntuazioak 2024-2025 ikasturterako plazak esleitzeko prozesu osorako balioko du. Eskabideak puntuazioaren arabera hurrenkeran antolatuko dira, adinetan sailkatuta. Plazak eskabide bakoitzak zerrenda bakarrean duen hurrenkeraren eta adinaren eta eskatutako eskolaren arabera esleituko dira.





### 3. Izena emateko eta matrikulatzeko ohiko epea.

Eskolatzea 2024ko irailean hasteko, hauek izango dira izena emateko eta matrikulatzeko ohiko prozesuaren epeak:

1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.	2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 10era (eta maiatzaren 20ra arte, 2024ko maiatzaren 10etik 15era –biak barne- jaiotako haurrentzat).
2. Eskatzaileen zerrenda argitaratzea.	2024ko maiatzaren 22an.
3. Derrigorrezkoa den dokumentazioa zuzentzeko epea.	2024ko maiatzaren 23tik ekainaren 5era.
4. Behin-behineko zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea.	2024ko ekainaren 19an.
5. Erreklamazioak egiteko epea.	2024ko ekainaren 19tik 21era.
6. Behin betiko zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea.	2024ko uztailaren 1ean.

#### 3.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

##### Aurkezteko tokia:

- Online (izena emateko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre, aurretiko txanda hartuta, hemen:
  - Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak.
  - San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa.
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza premia bereziak dituzten haurren kasuan, eskabideak eta dokumentazioa Hezkuntza Zerbitzuaren bulegoetan (Frai Zacarias Martinez kalea, 3) aurkeztuko dira lehenespenez eta aurrez aurre. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako, zeina 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez.





### **Kontuan izan beharreko alberdi garrantzitsuak:**

- Eskabide bakarra aurkeztuko da haur bakoitzeko.
- Behar bezala sinatuta dauden eta derrigorrezko dokumentazioa erantsita duten eskabideak bakarrik onartuko dira izapidetzeko (ikus 5.1. puntua).
- Online izapidetzeko, eskabidea Vitoria-Gasteizko Udalak bere egoitza elektronikoan horretarako gaituta duen gunean beteko da.
- Aurrez aurreko izen ematea izapidetzeko, sarrera berriko eskabide orriak Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan eta San Antonio 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzako Bulegoan jaso ahalko dira, eta baita hezkuntzaren webgune honetan ere: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>
- Eskabide orrian plaza lortu nahi den 5 eskola adierazi ahal izango dira, lehentasun ordenaren arabera. Bost eskola horiek Udal Haur Eskolak zein Haurreskolak Partzuergoak Vitoria-Gasteizen kudeatzen dituen Haur Eskolak izan ahalko dira. Lehen tokian adierazitako lekua ezingo balitz esleitu, beste lau plaza hartuko dira kontuan, adierazitako hurrenkeran.
- Eskabideak araudi honetako baremoa aplikatzearen ondorioz lortutako puntuazioaren arabera antolatu ondoren, eskatutako eskolen artean hutsik den aurrenekoan esleituko da plaza.

### **3.2. Eskatzaileen zerrenda argitaratzea.**

Zerrenda hori Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan eta hezkuntzako webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>) argitaratuko da.

Zerrenda horren bidez, eskatzaileen zerrenda eta eskaera bakoitzaren egoera argitaratuko dira. Honako hauek izango dira:

- Osoa eta, beraz, izapidetzeko onartua.
- Osatu gabe, nahitaezko zer dokumentazio falta den zehaztuta.

### **3.3. Derrigorrezkoa den dokumentazioa zuzentzeko epea.**

Osatu gabeko eskabideen kasuan, falta den derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da, hots, eskabidea izapidetzeko beharrezkoa dena, honako modu hauetan:





- Online (derrigorrezko dokumentazioa zuzentzeko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre, aurretiko txanda hartuta, hemen:
  - o Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak.
  - o San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa.
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

**Ez da onartuko derrigorrezkoa ez den eta eskabidea egiteko epean aurkeztu ez den dokumentaziorik.**

### 3.4. Behin-behineko haur onartuen zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea.

Bai onartu izan diren ikasleen behin-behineko zerrenda, bai itxaron zerrenda, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoaren Haurreskoletan eta honako hezkuntza webgune honetan argitaratuko dira: <https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>

Zerrenda horretan, haurra onartua dagoen eskola argitaratuko da. Plazarik lortu ez duten ikasleen kasuan, baremazioan lortutako puntuazioa, zein eskolatan geratu den itxaron zerrendan eta horietako bakoitzean duen posizioa zehaztuko da.

### 3.5. Erreklamazioak egiteko epea.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, baremazio prozesuan akatsen bat edo okerren bat egonez gero. Epe horretan ez da dokumentazio berririk onartuko. Idatziz aurkeztu ahal izango dira Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan edo Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

### 3.6. Behin betiko zerrenda eta itxaron zerrenda argitaratzea.

Onartutako ikasleen eta itxaron zerrendan dauden ikasleen behin betiko zerrenda Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Udal Haur Eskoletan, Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoleta eta hezkuntzako webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak>) argitaratuko da.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Udal Haur Eskoletako zuzendariak plaza lortu duten familietako bakoitzarekin jarriko dira harremanetan, honako dokumentazio aurkez dezaten:

- Haurren txertaketa-kartilla eguneratuaren fotokopia.
- Haurren bi argazki, txartelaren tamainakoak.
- Haurren osasun txartelaren fotokopia.
- Haurrak osasun arazoak, alergiak edota elikadura intolerantziak izanez gero, horren mediku egiaztagiria.
- Jantoki zerbitzuan plaza duten familiek, banketxeak emandako kontu zenbakiaren egiaztagiria.
- Banantze, dibortzio edo izatezko bikotekideen bizikidetzaren amaiera kasuan haurren eskolatzeari eragin diezaiokeen edozein agiri.



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## 4. Ohiko epetik kanpoko izen emateen eskabideak (2024-2025 ikasturtean zehar egitekoak).

Izena emateko ohiko prozesua amaitzen denean, hutsik dauden plazak eskatzeko epea irailetik aurrera zabalduko da, eta hilabete bakoitzaren 1etik 10era bitartean egingo da. Plazak hilero esleituko dira, araudi honetan ezartzen diren zehaztapenei jarraituz.

2024ko maiatzaren 10etik (eta 2024ko maiatzaren 20tik, 2024ko maiatzaren 10etik 15era bitartean jaiotako haurrentzat) abuztuaren 31ra bitartean aurkez daitezkeen eskabideak 2024ko irailaren 1etik 10era bitartean aurkeztutakoekin batera barematuko dira, eta eskolatzea 2024ko urriko lehen eskola egunean hasiko da.

### 4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea:

#### Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko tokia:

- Online (izena emateko azken egunaren 23:59ra arte).
- Aurrez aurre (aurretiko hitzorduarekin), hemen:
  - Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoak.
  - San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoa.
- Herri Administrazioaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen den moduan.

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten haurren kasuan, eskabideak eta dokumentazioa Hezkuntza Zerbitzuaren bulegoetan (Frai Zacarias Martinez kalea, 3) aurkeztuko dira lehenespenez eta aurrez aurre. Aurretiko hitzordua eskatu beharko da horretarako, zeina 945 16 12 30 telefono zenbakiaren bidez edo helbide elektronikoaren bidez eskatu ahalko baita.

Hutsik dauden plazak puntuazio hurrenkeraren arabera emango dira, prozedura honi jarraituz:

- Familiek **hilabete bakoitzaren 1etik 10era bitartean** eskatu ahalko dute plaza, haurra hurrengo hilabetearen lehen eskola egunean has dadin.





*Adibidea: Eskolan abenduaren 1ean hasi nahi bada, eskabidea azaroaren 1etik 10era bitartean egin beharko da.*

- Eskabidea izapidetu ondoren derrigorrezko dokumentazioa zuzendu beharra dagoela edo akatsen bat dagoela hautematen bada, Hezkuntza Zerbitzua familiarekin harremanetan jarriko da telefono bidez, derrigorrezko dokumentazioa zuzendu edo aurkeztu dezan. Familiak ez badu zuzentzen edo ez badu aurkezten derrigorrezko dokumentazio hori, eskabidea ez da izapidetuko.
- Jasotako eskabide guztiak izena emateko ohiko prozesuko irizpide berberei jarraituz barematu eta lortutako puntuazioaren arabera sailkatu ondoren, izena emateko ohiko prozesuan sor daitekeen **itxaron zerrendari** gehituko dira.
- Hilabete bakoitzaren 15etik 20ra bitartean deituko zaie plaza lortu izan duten familiei, hurrengo hilabetearen lehen eskola egunean haurra has dadin eskolako harrera egiteko eta eskolako bizitzara ohitzeko aldiari. Plaza lortu izan duten familiei bakarrik deituko zaie.

Eskatutako plaza bati uko egiten bazaio, eskabidea ezabatu egingo da itxaron zerrendatik. Berriz zerrenda horietan egotea nahiko balitz, idatziz eskatu beharko da.

Ikasturteko bigarren hiruhilekoa amaituta, 2025eko apiriletik aurrera, premia bereziko kasuetarako baino ez dira onartuko onarpen eskaerak.

## 4.2. Itxaron zerrenda eta epez kanpoko eskabideak:

**Itxaron zerrendaren eraketa eta hurrenkera.** Hauek eratuko dute zerrenda hori:

- Eskabidea izena emateko ohiko epean (2024ko apirilaren 22tik maiatzaren 10era arte, eta maiatzaren 20ra arte 2024ko maiatzaren 10etik 15era jaiotako haurren kasuan) eman eta plaza lortu ez dutenak: baremazioan lortutako puntuazioaren arabeko hurrenkeran.
- 2024ko maiatzaren 15aren ondoren jaiotako haurren eskabideak: “epe barruan” egindako eskabidetzat hartuko dira, ondorio guztietarako. Baremoan lortutako puntuazioaren arabeko hurrenkeran egongo dira, aurreko ataleko eskabideekin batera.







- Izena emateko ohiko epetik kanpo aurkeztutako eskabideak (arestian aipatutako kasuak izan ezik): ohiko epetik kanpo aurkeztutakoen atzetik jarriko dira, baremazioa egin ondoren.
- Plaza lortu eta uko egiten diotenen eskabideak: izena emateko ohiko epetik kanpo aurkeztutakoen ondoren jarriko dira, baremazioaren arabera, idatziz eskatu eta gero.

**Izena emateko ohiko epetik kanpo aurkezten diren eskabideei buruzko prozeduraren egoera zehatzak:**

- Ez dira izapidetzeko onartuko ezarritako inskripzio epeetatik kanpo aurkeztutako eskabideak (epe arrunta eta hilabeteroko epeak). Eskabide horiek hurrengo inskripzio aldian jasotakoekin izapidetuko dira.
- Ikasturtean zehar Udalaren Gizarte Zerbitzuek eskolako plaza bat eskatzen badute, era berezian jokatu da, Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Udalaren Hezkuntza Zerbitzuaren artean 2017ko irailaren 11n hitzartutako gizarte-zailtasuneko egoeran, ahultasun sozioekonomikoan edota haurren babesgabetasun-arriskuan edo -egoeran dauden 0-3 urteko haurrei hezkuntza eta arreta emateko Lankidetzaren eta koordinazio protokoloan ezarritakoari jarraituz. Protokolo hori 2020ko uztailaren 27an eguneratua izan da.





## 5. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

### 5.1. Nahitaezko dokumentazioa.

**Eskaera izapidetu ahal izateko, nahitaezkoa da honako dokumentazio hau aurkeztea **eskaera orriarekin** batera (eredu ofizialaren arabera izango da), behar bezala beteta eta sinatuta:**

#### a. Familiari dagokion dokumentazioa:

- **Familia liburuaren** fotokopia. Familia libururik ez balego, **haurra Erregistro Zibilean inskribatu izanaren** fotokopia aurkeztuko da.
- **Legezko tutorearen edo tutoreen kasuan**, hori egiaztatzen duen epaiaren edo ziurtagiri ofizialaren fotokopia.
- **Haurra familia harreran badago**, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
- **Adopzio prozesuan dauden haurren kasuan**, familia liburua plaza lortu ondoren aurkeztuko da, eskabidea egiteko epean aurkeztu beharrean. Edonola ere, familiaren erantzukizuna izango da adopzioaren izapideak formalizatutakoan hori jakinarazi eta familia liburua aurkeztea.

#### b. Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoerari dagokion dokumentazioa:

- Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean kotizatzen badute: **Gizarte Segurantzaren LAN BIZITZAREN** ziurtagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzaren alta emanda ez badaude: **beste erregimen edo mutualitate batean alta emanda egotearen ziurtagiria**.
- Behin betiko ezintasun iraunkor absolutuaren kasuan: **Gizarte Segurantzaren ebazpenaren kopia**.
- Orain arte lan egin ez duten pertsonen kasuan: **Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, lan bizitarik ez dutela egiaztatzen duena**.

#### c. Seme-alaba adingabeak zaintzeko lan eszedentziari dagokion dokumentazioa (egoera horretan dauden pertsonentzat SOILIK):





- **Enpresaren ziurtagiria**, lanpostura noiz itzuliko den adierazten duena. Aldi baterako etete egoera berezia adingabeak zaintzeko lan eszedentziarekin parekatuko da eta, beraz, beharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztea, egoera horren amaiera data jasotzen duena.

**Eskaera ez da izapidetuko** seme-alaba adingabeak zaintzeko lan eszedentzian badago eta, aldi berean, horregatik laguntza ekonomikoak jasotzen baditu eta laguntza horiek ez badira amaitzen haurraren eskolatzearen lehen hilabetean

Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu laguntza horiek jasotzeari buruzko datuak, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari kontsulta eginez, **berariaz adierazi ez badute ez dutela baimenik ematen (baimenik ezaren eranskina).**

**d. Amatasun eta aitatasun baimenei dagokien dokumentazioa (urte batetik beherako ikasleen familientzat SOILIK):**

Gurasoek edo legezko tutoreek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- **Amatasun eta aitatasun baimenei buruzko Gizarte Segurantzaren ebazpena.** Justifikatu egin beharko dira bi gurasoek edo legezko tutoreek (edo pertsona bakarrak, guraso bakarreko familien kasuan) hartutako baimen aste guztiak.
- Gizarte Segurantzaren ebazpenean baimen aste guztiak agertzen ez badira, gainerako asteak jasotzen dituen **enpresa ziurtagiria** ere aurkeztu beharko da.

**5.2. Nahitaezkoa ez den dokumentazioa, baina beharrezkoa baremazioan puntuak lortzeko.**

Onarpen prozesuan dagokion puntuazioa lortzeko eta hileko kuota esleitu ahal izateko, familiek agiri hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

**a) Familia unitatearen urteko errenta egiaztatzen duen dokumentazioa.**





- Familiek Araban aurkezten badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, baimena eman ahal izango diote Hezkuntza Zerbitzuari horrek ofizioz eska dezan beren datu fiskalei buruzko informazioa. Horretarako, eskabide orrian baimendu beharko dute. Bestela, zerga horren aitortpena egiteko betebeharra duten familia unitateko pertsona guztien 2022. urteko aitortpenaren kopia aurkeztuko da.
- Beste foru lurralde bateko edo Estatuko Zerga Agentziako zergadunak badira, edo Espainiako Estatutik kanpo ordaindu bazituzten zergak, Hezkuntza Zerbitzuak ezingo ditu pertsona horien datu fiskalak kontsultatu. Horregatik, zerga horren aitortpena egiteko betebeharra duten familia unitateko pertsona guztien 2022. urteko errentaren gaineko aitortpenaren kopia aurkeztuko da.
- Errenta aitortpenik ez bada egin, foru ogasunen batek edo Estatuko Zerga Agentziak –kasuan kasu– emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, aurkeztu ez izana bermatzen duena, edota familia unitateko guztiek 2022. urtean eskuratutako diru sarrerak justifikatzeko balio duten honako agiri ofizial hauen kopiak, dagokionaren arabera:
  - Etekin garbien ziurtagiria, Foru Ogasunak edo Estatuko Zerga Agentziak emana.
  - 10 T agiria.
  - Pentsioaren ziurtagiria.
  - Langabeziaren ziurtagiria, Lanbidek emandakoa, jaso izan diren prestazioak jasotzen dituen.
  - BEZaren urteko aitortpena.
  - Familiaren 2022. urteko egoera ekonomikoa egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- Familia unitateko kideren batek ez badu egin PFEZaren aitortpena, Espainiako Estatutik kanpo egonez gero, dagokion ogasunak edo jatorrizko herrialdeko administrazio eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztuko du, 2022an jasotako errenta guztiak eta PFEZari egotz dakizkiokeen adierazten dituen.
- Ezkontzak desagiten edo ezkontideak banantzen edo dibortziazten badira, edo izatezko bikoteen bizikidetzatza eteten bada, haurraren zaintza eta jagoletza duenaren errenta baino ez da hartuko kontuan dagokion baremoa aplikatzeko, behin-behineko neurrien autoaren, ebazpen judicial irmoaren edo epaitegian berretsitako hitzarmen arautzailearen arabera, gehi haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen diru sarrerak, halakorik balego.





- Haurren zaintza Administrazioaren tutoretzapean balego, puntuazio handiena emango zaio errenta egoerari.
- Eskabidean anai-arreba adingabeen kopurua ere zehaztuko da. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu horien erroldatze datuak. Vitoria-Gasteiztik kanpo bizi diren kasuetan, familiek errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- **Familia unitateari eta beste familia inguruabar batzuei buruzko dokumentazioa:**
  - **Ama bakarreko edo aita bakarreko familiak:**
    - Eskatzaileak familia liburuaren (edo seme-alaba Erregistro Zibilean inskribatu izanaren agiriarekin) egiaztatuko du ez duela ezkontiderik edo izatezko bikoterik.
    - Edo guraso bati guraso-ahala ematen dion ebazpen judizial irmoaren, behin-behineko neurrien autoaren edo epaitegian berretsitako hitzarmen arauemailearen kopia.
  - **Bi gurasoko familiak:**
    - Familia liburuaren edo, horren ezean, haurren jaiotza jasotzen duen Erregistro Zibileko egiaztagiraren bidez egiaztatuko da bi gurasoko familia dela.
  - **Berriz eraturako familiak:**
    - Haurren amatzat edo aitatzat hartuko da, halaber, zaintza bakarra duen aitaren edo amaren legezko bikotekidea. Horretarako, guraso horri zaintza bakarra ematen dion epaia aurkeztuko da, bai eta beste pertsonarekin ezkondata dagoela jasotzen duen familia liburuaren fotokopia edo izatezko bikotearen legezko kondizioa jasotzen duen ziurtagiri ofiziala ere.
  - **Legezko tutore edo tutoreak:**
    - Legezko tutorea dela egiaztatzeko, epaiaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.
  - **Seme-alaba biologikoen, adoptatutakoen, adopzio aurrekoen eta familia harrerakoan anai-arreba adingabeak, eta berretutako familien anai-arreba adingabeak.**





- Eskabidean adierazi beharko da inguruabar hori. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du horren erroldatzea, etxebizitza berean bizi beharko direlako, ezinbestez. Vitoria-Gasteiztik kanpo bizi den kasuetan, familiek errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Adopzio prozesuan diren anai-arreben kasuan, familia liburua matrikula egiteko unean aurkeztuko da, eskabidea egiteko epean aurkeztu beharrean. Edonola ere, familiaren erantzukizuna izango da adopzioaren izapideak formalizatu izan direnean familia liburua aurkeztu eta jakinaraztea.
- Anai-arrebatzat hartuko dira, halaber, familia unitate berean legez eraturako tutoretzan edo familia harrera iraunkorrean edo adopzio aurreko familia harreran dauden haurrak. Horretarako, dagokion erakundeak emandako frogagiria edo ziurtagiria aurkeztuko da.
- Inskribatu beharreko haurraren zaintza gurasoetako bati bakarrik ematen bazaio, eskola plaza eskatzen zaion haurraren amaren edo aitaren legezko bikotekidea den pertsonaren seme-alaba adingabeak ere anai-arrebatzat edo anaiatzat hartuko dira, betiere haurraren etxebizitza berean bizi badira. Inguruabar hori ofizioz egiaztatuko da Vitoria-Gasteizko Udal Erroldan edo dagokion errolda ziurtagiria aurkeztuta, beste udalerriko batekoa baldin bada.

#### **b) Bizilekua edo lantokia egiaztatzeko dokumentazioa.**

- Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea ofizioz egiaztatuko da. Familiaren helbidetzat hartuko da haurra gurasoetako batekin edo legezko tutoretako batekin, gutxienez, bizi den tokia.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurrak, euren gurasoa/k edo legezko tutorea/k besteren kontura arituz udalerrri horretan lan egiten dutenenean: lan egiten duten enpresako titularrak edo langileen arduradunak egindako egiaztatzea aurkeztuko da, eta inguruabar hori gertatzen dela adieraziko da bertan.
- Errolda ziurtagiria, Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren kasuan, haur eskola publikorik ez duen udalerrri batean erroldatuta badaude eta zerbitzu hori daukan udalerrri hurbilena Vitoria-Gasteiz bada.





- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurrak, euren gurasoa/k edo legezko tutorea/k norberaren kontura arituz udalerrri horretan lan egiten dutenenean: Ekonomi Jardueren gaineko Zergan altan dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri bidez akreditatuko da tokia. Indarreko araudiari jarraituz, ez baldin badago Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda egoteko legezko betebeharririk, Vitoria-Gasteizko Udalak ematen duen irekitze baimenaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da.

#### **c) Eskatu den eskolan familiakoak izatearen egiaztageria.**

Anai-arrebak ere eskoletan matrikulatuta egonez gero, inguruabar hori 2023-2024 ikasturtean gertatu behar da eta 2024-2025 ikasturtean ere eman beharko da, atal horri dagokion puntuazioa emateko.

Eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen unean amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako eskola horretan lan egiten badu, hori ere kontuan hartuko da.

Familiak eskabidean adieraziko du inguruabar hori, eta ez da agiririk aurkeztu beharko, ofizioz egiaztatuko baita.

#### **d) Familia ugaria edo guraso bakarreko familia izatearen dokumentazio justifikagarria.**

- Familia ugariaren izaera familia ugariaren tituluaren edo txartelaren fotokopia eguneratuaren bidez egiaztatuko da.
- Guraso bakarreko familiaren izaera honela egiaztatuko da:
  - Familia liburua (halakorik ezean, Erregistro Zibileko inskripzioa).
  - Epaitegian berretsitako ebazpen judizial irmoaren, behin-behineko neurrien autoaren edo epaitegian berretsitako hitzarmen arautzailearen kopia.

#### **e) Haurraren edo senitartekoen aniztasun funtzionala egiaztatzeko agiriak.**

%33ko edo gehiagoko desgaitasunak baloratu egingo dira baremazioan. Horretarako, dagokion lurralde historikoko foru aldundian edo estatuko antzeko erakunde eskudunean gizarte politiken arloan eskumenak dituen sailak emandako dagokion ziurtagiria aurkeztuko da.





Kontzeptu horregatik puntuazioa jasotzeko eskubidea duten bi pertsona edo gehiago badira desgaitasuna dutenak, baten puntuazioa bakarrik hartuko da kontuan.

Baremazioan, hauen desgaitasuna balioetsiko da:

- Eskolako plaza eskatzen duen haurra.
- Eskolako plaza eskatzen duen haurraren gurasoak edo legezko tutoreak eta anai-arrebak.

**f) Eskolako plaza eskatzen duen haurraren gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera egiaztatzeko agiriak.**

Atal honetan puntuazioa lortzeko, gurasoen edo tutoreen lan egoerari buruzko nahitaezko dokumentazioaz gain, kontuan hartu ahal izango dira enplegu bilaketa aktiboari, ikasketa ofizialak egiteari edo eskaera egiteko unean dagoen ezintasun iraunkor absolutuko egoerari buruzko dokumentazioa.

**Lan egoera aktiboa:**

5.1. "Nahitaezko dokumentazioa" atalean azaldutako dokumentazioarekin justifikatuko da.

Honako egoera hauek hartuko dira lan egoera aktibotzat, eta, beraz, dagozkien puntuak lortuko dituzte:

- **Lan merkatuan lanean ari denean.** Familiaren lan egoerari buruzko nahitaezko dokumentazioarekin justifikatuko da.
- **Ezintasun iragankorreko egoeran** dagoenean..
- **Adingabeak zaintzeko eszedentzian dagoenean**, baldin eta lanpostuan hasteko data ez bada hilabete baino luzeagoa haurra eskolan hasi denetik. Data hori enpresaren ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan lanpostura noiz itzuliko den adierazi beharko da.
- Aldi baterako etete egoera berezia adingabeak zaintzeko eszedentziarekin parekatuko da. Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratuaren bidez egiaztatuko da.

**Enplegu bilaketa aktiboa:**







Enplegu bilaketa aktiboko egoera egiaztatzeko, LANBIDEren LEABD ziurtagiria aurkeztu beharko da eta Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu bilaketa aktiboari buruzko datuak kontsultatuko ditu ofizioz, **berariaz adierazi ez badute ez dutela baimenik ematen (baimenik ezaren eranskina).**

LANBIDEk berretsiko du, bere irizpideen arabera, lana aktiboki bilatzeko egoera.

### **Ikasketa ofizialak:**

Matrikularen egiaztatzea aurkeztuko da.

#### **g) Genero indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen dokumentazioa.**

Egoera hori egiaztatuko da Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan jasotako moduetako baten bidez, hots, lege honetan aurreikusitako emakumeen aurkako edozein indarkeria adierazpenengatiko kondena epaia: babes agindua edo biktimen aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial, edo Fiskaltzaren txostena, eskatzailea genero indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duena. Gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero indarkeriaren biktimentzako administrazio publiko eskudunaren harrera zerbitzuen txostenaren bidez ere egiaztatu ahal izango da, edo beste edozein tituluren bidez, betiere eskubide eta baliabide bakoitzerako irispidea arautzen duten arau xedapen sektorialetan halakorik aurreikusita badago.

#### **h) Genero indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen dokumentazioa.**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan den Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren edo Estatuko Administrazioako edo beste autonomia erkidego bateko erakunde eskudunaren ebazpenaren bidez egiaztatuko da izaera hori.

#### **i) Familia harrera egoeran dela justifikatzeko agiria.**

Dagokion foru aldundian gizarte politiken eskumena duen sailak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da izaera hori.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**Aurreko ataletako bakoitzeko dokumentazio egiaztagaririk ez balitz aurkeztuko, zero puntu emango dira onarpen baremoaren dagokion laukian.**

**Hezkuntza zerbitzuak hautematen badu eskabidean adierazitako datuak edo erantsitako agiriak ez datozela bat edo kontraesanaren bat dagoela horien artean, penalizazioa aplikatu ahal izango du pertsona horrek lortutako puntu kopuruan, eta, plaza emana bazaio, hori kendu ahalko zaio, interesdunari aurretik dagokion entzunaldia eskaini ondoren.**



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora





## 6. 2024-2025 ikasturterako tarifak

### 6.1. Zerbitzuaren prezioa.

Udal Haur Eskolen 2024-2025 ikasturterako tarifak 2023ko 8.1 Ordenantza Fiskalean ezartzen dira, zeina 2024ra luzatu baita. Ordenantza horrek "Udal Haur Eskoletan eta Hezkuntza Zerbitzuaren opor programetan parte hartzeagatiko" prezio publikoa arautzen du. Ordenantza hori 2023ko martxoaren 3an onartu zuen, behin-behinean, Udaltzarak, eta behin betiko bihurtu zen, ez baitzen erreklamaziorik aurkeztu jendaurrean jartzeko epean (ALHAO, 2023ko maiatzaren 12koa).

1.- Udal Haur Eskolek doan emango dute zerbitzua, matrikula barne, bai 8:00etatik 13:00etarako ordutegian, bai 8:00etatik 16:00etarako ordutegian. Doan izateko neurri horretatik kanpo geratzen da jantoki zerbitzua, 8:00etatik 16:00etarako ordutegiari dagokiona, alegia. Tarifa 33,90 euro izango da.

2.- Zaurgarritasun sozioekonomikoan dauden familietako 2022ko, 2023ko eta 2024ko urteetan jaiotako haurrak, Udalaren Gizarte Zerbitzuetatik bideraturik direnean, salbuetsita geratu ahalko dira jantoki zerbitzua ordaintzetik, erakunde horrek proposamen arrazoitua egin eta gero. 2024-2025 ikasturtean, Udalaren Gizarte Zerbitzuek erreserbatutako 20 plaza bideratuko ahalko dituzte, gehienez jota.

3.- Hauek dira 2024-2025 ikasturtean Udal Haur Eskoletara joateagatik eta jantoki zerbitzua erabiltzeagatik diren prezio publikoak:

- **1. BERTARATZEA:** 8:00etatik 13:00etara.

2022an, 2023an eta 2024an jaiotako haurrak.....0,00 euro hilean, haur bakoitzeko.

- **2. BERTARATZEA:** 8:00etatik 16:00etara.

2022an, 2023an eta 2024an jaiotako haurrak (6 hilabete bete ondoren) ....33,90 euro hilean, haur bakoitzeko.





4.- 8:00etatik 16:00etarako ordutegian matrikulatuta diren 6 hilabeteko haurren jantoki zerbitzuaren kuota, hain zuzen, 6 hilabete bete ondorengo hurrengo hiletik aurrera kobratuko zaie.

5.- 2024an jaiota 6 hilabete baino gutxiago dituzten eta 8:00etatik 16:00etarako ordutegian matrikulatuta dauden haurrek jantoki zerbitzua erabili ahalko dute familiak hala eskatzen badu. Kasu horretan, 2. Bertarutzerako ezarritako prezio publikoa kobratuko zaie.

## 6.2. Arau aplikagarriak.

1. Ordainketa guztiak banku helbideratzearen bidez egingo dira.
  2. Jantoki zerbitzuaren kuota hilabetea igarotakoan kobratuko da, eta hilabete bati dagokiona izango da, ikastetxeko egonaldia, eskola irekita dagoen egun kopurua edo haren funtzionamendu mota edozein dela ere.
  3. Eskolan ematen diren hilabete bateko edo biko absentziak behar bezala justifikatu eta jakinaraziko dira, idatziz, Udal Hezkuntza Zerbitzuari, absentzia gertatzen hasten denetik hamar egun balioduneko epean. 8:00etatik 16:00etarako ordutegian gertatzen diren absentzia horiek justifikaturik daudenean, eta hori onarturik denean, jantoki zerbitzuko kuota %50 murriztuko da. Aplikatu beharreko kuota ez da huts egiten den egunen araberakoa izango; hau da, hileko kuota aplikatu da. Horregatik, %50eko murrizketa aplikatuko zaio dagokion hilabeteko kuotari, hilabete batean edo bitan, kasuan kasu.
  4. Jantoki zerbitzuan bi hileko ordaindu gabe uzten badira, haurrari baja emango zaio automatikoki jantoki zerbitzuan eta, beraz, 8:00etatik 16:00etarako ordutegian. Hala ere, 8:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian matrikulatuta jarraitu ahalko du.
2. Prezio publiko horiek ez badira adierazitako epeetan ordaintzen, zordunaren ondarearen gaineko premiamendu prozedura abiaraztea ekarriko du, eta %20ko errekarua sortuko da “premiamendu errekaru” gisa.





Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

3. 13:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegi tartea –jantoki zerbitzua barne du– noizbehinka erabiltzearen prezioa tarifa aplikagarriaren hainbanaketari dagokiona izango da, eta %10eko gehikuntza aplikatuko zaio.



**Vitoria-Gasteiz**  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora



**HEZKIDETZA**  
COEDUCACIÓN